

Partiturak osatzeko editorea sareratu du Tirikitraukik

Solfeorik gabe erakusten den eskoletako metodoa du oinarri on-line editore honek, eta edonoren eskura jarri du sortzaileak, Tirikitrauki musika-dendak, bere webgunean. Nork bere partiturak sortzeko, norberak sortutakoa sarean erabilgarri uzteko, aukeran.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

MUSIKAN, klasikoak eta tradizionalak nekez egin ohi dute bide bera. Joera hori instrumentu bati aplikatzen bazaio –demagun trikitiari, biolinari edo gitarrari–, berori erakusteko, transmititzeko edo sozializatzeko eratan ikusiko ditugu bataren eta bestearen arteko aldeak.

Trikitiak, oraintsu musika eskoletara heldu zenetik, dagoeneko bi moduak eskaintzen dizkio bidea urratu nahi duenari. Klasikoak, irakaskuntza arautuan eskaintzen denak, solfeo du funtsa, eta instrumentua jotzen ikasi nahi duenak hari heldu behar dio hasteko eta behin. Modu tradizionalak –mundu osoan zabaldiena musika-tresna diatonikoetan– garrantzi handia ematen dio belarriari, eta solfeo izpirik jakin behar izan gabe, sistema zifratu sofistikatu xamar baten bidez ematen zaizkio ikasleari musika-tresna jotzen hasteko irakaspenak. Zentrook, eskola sortu duten trikitilarien ingurumarian eratu izan dira usu, eta pertsonalagoak dira irakasterakoan.

Ez da horren aspaldiko kontua irakaslea eta ikaslea aurrez aurre jarri, eta bata besteari segika ikasten zueneko garaia. Elgeta (1906-1964) izan genuen soinu jotzen irakasteko lanak hartu zituen lehen trikitilari profesionala. Besterik ere behar zela konturatu eta idatzizko metodoa bilatzen hasitako lehenengoetakoa, berriz, Villabonako Martin izan zen. Halaxe hasi ziren apurka biribilak –hauspoa eragiteko moduaren arabera finak edo lodiak–, zenbakiak –sakatu beharreko teklaren adierazle–, puntuak –tekla sakatu behar duen hatza zein den argitzen dute–, azpi-indize eta goi-indizeak –sakatu beharreko tekla ezkerrekoa edo eskuinekoa den–, eta beste hainbat ikur baliatzen partiturak osatzeko.

Partiturak sortzeko sistema zifratua bai, beraz, baina eskuzkoa, papera eta erregela hartu eta norberak landu beharrekoa. Ausartenek, Photoshop, Freehand edo antzeko



Amaia Orea eta Juanjo Manterola, Tirikitrauki musika-dendakoak. Haien ekimenez asmatu du lametzak trikitirako partiturak sortzeko editorea.

irudi programak baliatu izan dituzte ordenagailuan, baina eskuz nahiz ordenagailuz izan, partitura bakoitza lantzeko orduak eta orduak emanez, betiere.

Garai digitaletara egokitzeko beharraz oharturik, horra Tirikitrauki musika-dendak eman berri duen pausoa: partiturak idazteko editore librea, lametza Interaktiboak garatua. Word programak idazteko balio digun bezala, erreminta horrek tresna diatonikorako partiturak erraz eta eroso sortzeko balio du. Behin osatuta, sortzaileak beretzat jaso dezake edo sarean ere utzi, besteentzat erabilgarri.

Informatikoki programatzeko, hutsetik abiatu zen Julen Irazoki: “bila aritu nintzen han eta hemen, baina ez nuen Tirikitraukiren tankerara egokituko zen ezer aurkitu inon. Bertzalde, tresna jotzeko metodoa ez da bat eta bera, eta tokian tokiko aldaerak ditu. Urtebete ko lana izan da, baina ederra, erabili ahala balioa handituko duena”. ■

